

**Larraintzako**  
IKASTETXEA

## URTEKO PROGRAMAZIOA

<b>IKASTURTEA</b>	2019/2020	<b>IRAKASLEA</b>	Urki Munarriz
<b>MAILA</b>	DBH 1	<b>ARLOA</b>	Matematika

### HELBURUAK, OINARRIZKO GAITASUNAK, EDUKIAK, EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculum a ezartzen duena.

[http://www.navarra.es/home\\_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/](http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-0/)

#### EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

<b>1. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Zenbaki arruntak.</li><li>2. Zenbaki osoak.</li><li>3. Zatigarritasuna.</li><li>4. Zenbaki hamartarrak.</li><li>5. Zatikiak.</li></ol>
<b>2. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>6. Aljebra.</li><li>7. Funtzioak eta grafikoak.</li><li>8. Proporzionaltasuna eta ehunekoak.</li><li>9. Sistema metriko hamartarra.</li></ol>
<b>3. ebaluazioa</b>	<ol style="list-style-type: none"><li>10. Zuzenak eta angeluak.</li><li>11. Irudi lauak eta espazialak.</li><li>12. Azalerak eta perimetroak.</li><li>13. Estatistika.</li></ol>


#### KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluazio bakoitzean lortuko den kalifikazioa modu honetan kalkulatu da.

- ❖ Azterketak %70
- ❖ Lan pertsonal eta taldekoak %15
- ❖ Jarrerak %15

Azterketa bakoitzean gutxienez 4 atera behar da batzbestekoa egin ahal izateko.

Bertzalde, derrigorrezkoa da jarreran 5a edukitzea irakasgaia gainditzeko.



### **BERRESKURAPEN SISTEMA**

Ikasturteko berreskurapenak:

- ❖ Ebaluazio bakoitzaren bukaeran, gainditu ez diren edukiak berreskuratzeko, errefortzu ariketak eta ekintzak proposatu daitezke berreskurapeneko kontrola egin aurretik.
- ❖ Azterketen batazbestekoa ezin denean egin, 5era iritsi ez diren atalak berreskuratu beharko dira.
- ❖ Berreskurapen kontroleko egunerako lanen bat entregatzea eskatzen bada, gehienez puntu bateko balioa izango du, kontroleko notari gehituko zaiona, beti ere kontrolean gutxienez 4 atera badu. Lanik aurkeztu behar ez denean, berreskurapen kontrolean 5 atera behar da gutxienez gaitzeko.
- ❖ 1. eta 2. ebaluazioek beraien berreskurapena izango dute ebaluazio bakoitzaren ondoren. 3. ebaluazioko berreskurapena ohiko deialdian egingo da.
- ❖ 1. eta 2. ebaluazioen berreskurapena gaitzen ez bada, ebaluazio osoa ekaineko ohiko deialdian berreskuratu beharko da. 3. ebaluazioko berreskurapenean gaitu gabeko atalak erreperatu beharko dira ohiko deialdian. Suspenditutako ebaluazio bakoitzarentzat azterketa bat egongo da ohiko deialdian gaitzeko eta ebaluazio bakoitzean 5 lortu behar da gutxienez.
- ❖ Ohiko deialdian ebaluazioen bat berreskuratzen ez bada, ez-ohiko deialdian ikasturte osoa berreskuratu beharko da, gutxienez 5 lortuz.

### **BESTELAKOAK: baliabideak, metodologia, aniztasuna**

- ❖ Erabiliko den testu-liburua Anaya-Haritz argitaletxekoa izango da. Honetaz gain, material digitalizatua eta fotokopiak erabili daitezke.
- ❖ Ikasleek beraien kalkulagailu zientifikoa izan beharko dute klasean adierazten zaien momentuetan erabiltzeko. Gomendatzen ditugun modeloak Casio fx-82SPX II eta Casio fx-991SPX II dira baina beste modeloek ere balio dute.
- ❖ Komenigarria denean kontrol idatziak egingo dira, baina horretaz gain etxera lanak eta klaseko lanak proposatuko dira, bai banaka bai taldeka ebazteko.
- ❖ Ebaluazioetan zehar koadernoak hartuko dira, beharraren arabera, egindako lanak aztertzeko.
- ❖ Azterketa bakoitza baino lehen, erreperatu edo errefortzu ariketak proposatuko dira ikasle bakoitzaren beharraren arabera.

Sinadura  
Urki Munarriz  
Larraintzarren 2019ko Irailaren 6an